



Zaintza aringarriak haurrentzat eta helduentzat: Ezezaguna dugun eskubidea



Zaintza aringarrien inguruko ezagutza gizartean zabaldu eta herritar bezala dugun eskubide hau ezagutaraztea da Uda Ikastaro honen helburua.

Eka. 30 - Uzt. 01 2025

Kod. 010-25

Mod.:

Aurrez aurrekoa

Edizioa

2025

Jarduera mota

Uda Ikastaroa

Data

Eka. 30 - Uzt. 01 2025

Kokalekua

Miramar Jauregia

Hizkuntzak

Gaztelera Euskara

Balio akademikoa

20 ordu

Antolakuntza Batzordea



Fundación
BBVA



Azalpena

Sendatu ezin denean, zaindu dezakegula erakusten digute zaintza aringarriek. Bizitza bera heriotzaren arriskuan dagoenean ere, bizitza indartu eta zaindu dezakegula. Zaintza aringarriek, inork bizi nahi ez dituen momentu gogorretan, babesa, mota ezberdinetako minari eta beharrei erantzuteko gaitasuna, eta profesionaltasun maila handia eskaintzen dizkigute.

Baina legez eskubide dugun zaintza hau ezezaguna da herritarron artean. Ezezaguna da, sarritan ere, profesionalen formazioan eta osasun egituretan. Eta haurren zaintzari erreparatuz gero, zaintza aringarri pediatrikoak oraindik garatu gabe daude Euskal Autonomia Erkidegoan. Zaintza aringarriak garatzeak gizarte bezala indartu eta humanizatu egingo gaitu, ekidin daitekeen sufrimendua ekidinez.

Zaintza aringarrien inguruko ezagutza gizarteaz zabaldu eta herritar bezala dugun eskubide hau ezagutaraztea da Uda Ikastaro honen helburua. Bai haurren, bai helduen zaintza aringarriak jaso dituzten herritarren esperientziak eta gaiaren inguruko adituen ezagutza elkartuko ditugu. Eta ikuspuntu hauen guztien bidez, zaintza aringarriak garatzeak ekarriko dituen onurak azaleratuko dira.

Helburuak

Herritarrei zaintza aringarrien alorrean duten eskubidearen berri ematea.

Haurren zaintza aringarrien inguruko behararen eta egun dagoen hutsunearen berri ematea.

Zaintza aringarrien antolaketa egiturari buruz gogoetatzea.

Lankidetzak



Programa

2025-06-30

09:00 - 09:15	Harrera
09:15 - 09:25	Jardueraren zuzendaritzaren aurkezpena Nere Erkiaga Laka Hil Argi Elkartea - Zuzendaria
09:25 - 11:00	Mahai ingurua: "Herritarren esperientziatik: Haurrek zaintza aringarriak jasotzeko duten eskubidea" Nere Erkiaga Laka Hil Argi Elkartea - Moderatzailea (Moderatzailea) Amaia Madariaga Zabala Herritarra Bittor Asteinza Blanco
11:00 - 11:30	Atsedena
11:30 - 12:15	"¿Cómo funciona la Unidad de Atención Domiciliaria Pediátrica y Cuidados Paliativos Pediátricos de Cruces?" Jesus Sánchez Etxaniz Hospital Universitario de Cruces. Osakidetza - Responsable de la Unidad de Hospitalización a Domicilio y Cuidados Paliativos Pediátricos
12:15 - 13:00	"¿Qué organización mínima sería necesaria para un servicio de cuidados paliativos pediátricos de calidad en la CAV?" Iñigo de Noriega Echevarria Hospital Infantil Universitario Niño Jesús. Madrid - Miembro del Equipo médico de la Unidad de Cuidados Paliativos Pediátricos
13:00 - 14:00	Mahai ingurua: "La necesidad de un servicio autonómico de cuidados paliativos pediátricos" Julio Gómez Cañedo (Moderatzailea) Jesus Sánchez Etxaniz Hospital Universitario de Cruces. Osakidetza - Responsable de la Unidad de Hospitalización a Domicilio y Cuidados Paliativos Pediátricos Iñigo de Noriega Echevarria Hospital Infantil Universitario Niño Jesús. Madrid - Miembro del Equipo médico de la Unidad de Cuidados Paliativos Pediátricos Nere Erkiaga Laka Hil Argi Elkartea - Zuzendaria

2025-07-01

09:00 - 09:15	Jardueraren zuzendaritzaren aurkezpena Nere Erkiaga Laka Hil Argi Elkartea - Zuzendaria
09:15 - 11:00	Mahai ingurua: "Herritarren esperientziatik: Herritarrek zaintza aringarriak jasotzeko duten eskubidea" Nere Erkiaga Laka Hil Argi Elkartea - Moderatzailea (Moderatzailea) Nerea Ortiz Larrinaga Zaintza aringarrien zerbitzua ezagutu duen herritarra Leire Markuerkiaga Olabe Zaintza aringarrien zerbitzua ezagutu duen herritarra
11:00 - 11:30	Atsedena

- 11:30 - 12:15 “Debagoienako OSiA: Nola lan egiten du hiriburuetatik kanpoko zaintza aringarrietako zerbitzu batek?”
- Iñaki Peña Bandrés** | Arrasateko Ospitaleko Zaintza Aringarrietako Unitatea - Arduraduna
-
- 12:15 - 13:00 “¿Qué organización mínima sería necesaria para un servicio de cuidados paliativos de calidad en la CAV?”
- Alberto Meléndez Gracia** | Unidad de Cuidados Paliativos del Hospital Txagorritxu - Responsable
-
- 13:00 - 14:00 Mahai ingurua: “La situación de los cuidados paliativos en la Comunidad Autónoma Vasca”
- Naomí Hasson** | Arinduz Euskadiko Zaintza Aringarrien Elkarte Lehendakaria / Presidenta de Arinduz Sociedad de Cuidados Paliativos de Euskadi (Moderatzailea)
- Iñaki Peña Bandrés** | Arrasateko Ospitaleko Zaintza Aringarrietako Unitatea - Arduraduna
- Alberto Meléndez Gracia** | Unidad de Cuidados Paliativos del Hospital Txagorritxu - Responsable
- Nere Erkiaga Laka** | Hil Argi Elkarte - Zuzendaria
-

Zuzendaritza



Nere Erkiaga Laka

Hil Argi Elkarte

La Laguna Unibertsitatean Tanatologia Masterra (2017), Euskal Herriko Unibertsitatean Komunitate Garapena eta Parte Hartze Masterra (2007) eta Mondragon Unibertsitatean Euskal Kulturaren Transmisioan Graduondoa (2011) ikasketak eginda ditu. Taldeen bideratzean eta heriotzaren inguruko ezagutza zabaltzen eskarmentua du eta Hil Arte Bizi sortu du, heriotzaren aurrean herritarrak eta komunitateak ahalduntzeko egitasmoa. 2018an Hil Argi Elkartearen sorrera bultzatu du. Elkarte honek, besteak beste, "Gehiago Gara" ekimena eta zaintza aringarriak behar dituzten haurrentzat "Bertso ipuin bat zuretzat" egitasmoak abiatu ditu. 2020-2021 ikasturtean zehar, Euskadi Irratiko Faktoria irratsaioan heriotzaren inguruko ezagutza hedatzeko 41 ataletako tartea bideratu zuen: <https://hilargi.eus/irratian/>

Irakasleak



Bittor Asteinza Blanco

Zaintza aringarrien zerbitzua ezagutu du aita bezala. Izandako esperientzia partekatuko du, besteentzat lagungarri izan dadin eta gizarte mailan eskubide hau ezagutarazteko helburuarekin.



Iñigo de Noriega Echevarria

Madrilgo Niño Jesús Unibertsitate Ospitalean zainketa aringarri pediatrikoetan espezializatutako pediatra, minbizia duen paziente pediatrikoarengan interes eta esperientzia berezia duena. Medikuntzako lizentziatura egin zuen Madrilgo Unibertsitate Autonomoan, Zainketa Aringarri Pediatrikoetako masterra Errioxako Nazioarteko Unibertsitatean, eta Osasun Zientzietako Estatistikako diplomatura Bartzelonako Unibertsitate Autonomoan. Errioxako Nazioarteko Unibertsitateko Zainketa Aringarri Pediatrikoetako Unibertsitate Masterreko koordinatzaile akademikoa ere bada. Pediatriako zainketa aringarriekin lotutako artikulua eta argitalpen zientifiko ugari egiten parte hartu du, eta zainketa aringarri pediatrikoetako arreta integralari eta ebidentzian oinarritutako praktikari buruzko unibertsitate-prestakuntza eman du.



Nere Erkiaga Laka

Hil Argi Elkarte

La Laguna Unibertsitatean Tanatologia Masterra (2017), Euskal Herriko Unibertsitatean Komunitate Garapena eta Parte Hartze Masterra (2007) eta Mondragon Unibertsitatean Euskal Kulturaren Transmisioan Graduondoa (2011) ikasketak eginda ditu. Taldeen bideratzean eta heriotzaren inguruko ezagutza zabaltzen eskarmentua du eta Hil Arte Bizi sortu du, heriotzaren aurrean herritarrak eta komunitateak ahalduntzeko egitasmoa. 2018an Hil Argi Elkartearen sorrera bultzatu du. Elkarte honek, besteak beste, "Gehiago Gara" ekimena eta zaintza aringarriak behar dituzten haurrentzat "Bertso ipuin bat zuretzat" egitasmoak abiatu ditu. 2020-2021 ikasturtean zehar, Euskadi Irratiko Faktoria irratsaioan heriotzaren inguruko ezagutza hedatzeko 41 ataletako tarte bideratu zuen: <https://hilargi.eus/irratian/>



Julio Gómez Cañedo

Licenciado en Medicina y Cirugía por la UPV/EHU. Coordinador de proyectos sanitarios y de desarrollo en los barrios urbano marginales de la ciudad de Quito (Ecuador) desde 1996 a 2001. Master en Medicina Paliativa . Desde 2003 médico responsable del equipo de cuidados paliativos domiciliario del hospital San Juan de Dios de Santurce, desde 2008 Director del Equipo de atención Psicosocial y desde 2016 Coordinador del Servicio de Cuidados Paliativos del hospital. Profesor en diferentes master y post grados en relación a los cuidados del final de la vida



Naomí Hasson

Naomi zainketa aringarrietako masterra eta galera eta trauma doluetan masterra duen erizaina da. Zainketa aringarriekin lotutako sektore askotan eta hainbat herrialdeetan lan egin du, besteak beste, Londresko Saint Josephs Hospicen. Gaur egun, Project Lead, Getxo Zurekin, Comunidad Compasiva País Vasco proiektuaren buru da DobleSonrisa Fundazioaren eskutik, Arinduz Euskadiko Zaintza Aringarrien Elkarteko lehendakaria ere bada, eta baita Echamos de Menos herritarren eta profesionalen plataformako koordinatzailea ere.



Amaia Madariaga Zabala

Zaintza aringarrien zerbitzua ezagutu du ama bezala. Izandako esperientzia partekatuko du, besteentzat lagungarri izan dadin eta gizarte mailan eskubide hau ezagutarazteko helburuarekin.



Leire Markuerkiaga Olabe

Zaintza aringarrien zerbitzua ezagutu du bikote bezala. Izandako esperientzia partekatuko du, besteentzat lagungarri izan dadin eta gizarte mailan eskubide hau ezagutarazteko helburuarekin.



Alberto Meléndez Gracia

Familia eta komunitate-medikuntzan espezializatutako medikua. Medikuntza aringarrian masterra. Euskal Herriko Unibertsitateak Santurtziko San Juan de Dios Ospitalarekin batera eskaintzen duen Zaintza Aringarrietako Masterrean irakaslea da. Irakasle laguntzailea da Nafarroako Unibertsitateko Medikuntza Fakultateko Zainketa Aringarriak ikasgaietan. Arabako ESiko Medikuntza Aringarriko Taldean medikua da; gaur egun, ESiko Lehen Mailako Arretako lankideei laguntza ematen die, zainketa aringarriak behar dituzten pazienteak eta familiak etxean artatzeko. Euskadiko Zainketa Aringarrien Elkarteko presidentea izan da 2010-2023 urteen artean, eta SECPAL Zainketa Aringarrien Espainiako Elkarteko presidenteordea 2016tik 2021era. 2020an, beste lankide eta lagun batzuekin batera, "Babespean" elkartearen sortu zuen, pertsona ahulenen zaintza sustatu eta balioan jarri nahian, familian eta komunitatean.



Nerea Ortiz Larrinaga

Zaintza aringarrien zerbitzua ezagutu du alaba bezala. Izandako esperientzia partekatuko du, besteentzat lagungarri izan dadin eta gizarte mailan eskubide hau ezagutarazteko helburuarekin.



Iñaki Peña Bandrés

2010ean hasi nintzen Zainketa Aringarrietan lanean Debagoieneko Ospitalean (Arrasate-Mondragón). Etxeko Ospitalizazioan lan egin nuen 2012-2013an Gurutzetan eta 2014-2015ean Goierri-Urola Garaiko Ospitalean (Zumarraga). Arinduz - Euskadiko zainketa aringarrien elkartearen zuzendaritza batzordekidea izan naiz. Komunitate errukitsuen nazioarteko sarearen barruan, "Zarautz, Herri Zaintzailea" ekimenaren taldekidea naiz. Gidoilari eta zuzendari lanak egin ditut "Aulki Hutsak" eta

"Mendian hil. Hirian hil" dokumentaletan (Arteman, 2013 eta 2020) eta "S(u/a)minetik bakera" obra eszenikoan (Arteman, 2017). Zainketa Aringarrietako Masterra naiz (UVic-ICO).



Jesus Sánchez Etxaniz

Zainketa aringarri pediatrikoetan espezializatutako pediatra eta Gurutzetako Unibertsitate Ospitaleko Etxeko Ospitalizazioko eta Zainketa Aringarri Pediatrikoetako Unitateko arduraduna da. Hezkuntza arloan ere dihardu. Errioxako Nazioarteko Unibertsitateko (UNIR) Zainketa Aringarri Pediatrikoetako Unibertsitate Masterreko irakaslea, eta Euskal Herriko Unibertsitateko Zainketa Aringarrietako Arreta Integraleko Unibertsitate Masterreko eta Arreta Goiztiarreko, Etxeko Arretako eta Zaintza Aringarrietako Masterreko irakalsea ere bada. Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak egindako EAEko 2023-2027 Zainketa Aringarrien Plana egin duen taldeko eta Aholku Batzordeko kidea da.

Matrikula prezioak

AURREZ AURRE	2025-07-01 ARTE
Orokorra	87,00 EUR
Matrikula murriztua orokorra	74,00 EUR
Matrikula exentzia	61,00 EUR
Gazte tarifa	25,00 EUR
Ikastaroak guztiontzat	74,00 EUR
Donostia Kultura	74,00 EUR
Osasuna, pertsonetikiko konpromisoa	22,00 EUR

Kokalekua

Miramar Jauregia

Mirakontxa pasealekua 48, 20007 Donostia

Gipuzkoa